

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4176

EBAZPENA, 2022ko irailaren 15ekoa, Kulturako sailburuordearena, 2022. urtean sormen artistiko eta kulturala bultzatzen duten kultura-gune independenteei zuzendutako dirulaguntzak jakinarazten dituen (Sorgune).

AURREKARIAK

1.– 2022ko ekainaren 8an, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko maiatzaren 24ko Agindua argitaratu zen EHAAn (110. zk.). Agindu horren bidez, kultura-sorkuntza babesten eta sustatzen duten kultura-gune independenteei 2022ko ekitaldian dirulaguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten da (Sorgune).

2.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 49.2 artikuluan ezarritakoa jarraituz, laguntzak emateari edo ukatzeari buruzko erabakiak, kasuan kasuko laguntzak arautzen dituzten arauak besterik esaten ez badute behintzat, EHAAn argitaratu beharko dira.

Horiek horrela,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko maiatzaren 24ko Aginduaren babesean emandako dirulaguntzen eta horien onuradunen zerrenda (I. eranskina), diruz lagundu ez diren eskabideen zerrenda (II. eranskina) eta artxibatutako eskabideen zerrenda (III. eranskina) argitara ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea, denek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 15a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

2022ko irailaren 27a, asteartea

I. ERANSKINA
DIRUZ LAGUNDU DIREN ESKABIDEAK

Espedientea	Eskatzailea	Jarduera	Puntuazioa	Dirulaguntza	2022 % 50	2023 % 50
022-SOR-2022	Aiaraldea Koop. Elk.	Aiaraldea Ekinzen Faktoria, sormen faktoria	76,9	88.578,00	44.289,00	44.289,00
005-SOR-2022	Azala Espacio de Creación y alojamiento rural, S.L.	Azala, azalerak, azaleak	96,4	111.054,00	55.527,00	55.527,00
004-SOR-2022	Bitamine Kultur Elkartea	Bitamine faktoria	84,6	58.000,00	29.000,00	29.000,00
021-SOR-2022	Consonni Ediciones, S. Coop. Pequeña	Consonni espazio kulturalaren bi urteko programazioa	81,9	94.333,00	47.166,50	47.166,50
019-SOR-2022	Garaion Koop. Elk. Txikia	Araba	87,5	100.788,00	50.394,00	50.394,00
007-SOR-2022	Sanagustin Azpeitiko Kulturgunea Koop. Elk.	Dinamoa sortzen gunea	93,1	107.247,00	53.623,50	53.623,50
Guztira:				560.000,00	280.000,00	280.000,00

2022ko irailaren 27a, asteartea

II. ERANSKINA
DIRUZ LAGUNDU EZ DIREN ESKABIDEAK

Espedientea	Eskatzailea	Jarduera	Puntuazioa	Zergatia
001-SOR-2022	Argiaren Basoa Koop. Elk. txikia	Argiaren Basoa	30,7	Balorazioaren lehen fasean gutxienez 45 puntu ez ateratzeagatik (Aginduaren 14.1.A artikulua)
014-SOR-2022	Arrakala Koop. Elkartea	Baratza Aretoa	62,3	Balorazioaren lehenengo eta bigarren fasean gutxienez 65 puntu ez ateratzeagatik (Aginduaren 14.1.B artikulua)
013-SOR-2022	Modu Elkartea Kulturala	Artiatx	-	Ez egiaztatzeagatik kultura-gunea kudeatzeko edo usiatzeko titulartasuna Agindua argitaratzen denetik proiektua amaitu bitartean (Aginduaren 5.1. a. artikulua)
012-SOR-2022	Esteka Elkartea	Arropaineko Arragua 2022-2023	61,7	Balorazioaren lehenengo fasean gutxienez 45 puntu ez ateratzeagatik (Aginduaren 14.1.A artikulua)
011-SOR-2022	Pagoa Hezi Elkartea	Txotenagunea	35,3	Balorazioaren lehenengo fasean gutxienez 45 puntu ez ateratzeagatik (Aginduaren 14.1.A artikulua)
008-SOR-2022	Samsara Elkartea Soziokulturala	Samsara Creaciones	27,5	Balorazioaren lehenengo fasean gutxienez 45 puntu ez ateratzeagatik (Aginduaren 14.1.A artikulua)
009-SOR-2022	Basque biodesing center	Intermedio montajes, S.L.	-	Ez egiaztatzeagatik kultura-gunea kudeatzeko edo usiatzeko titulartasuna (Aginduaren 5.1.a. artikulua)
010-SOR-2022	Bilbao Formate Koop. Elk. txikia	Sormen artistikoko espazioa oztoporik gabe	34,2	Balorazioaren lehen fasean gutxienez 45 puntu ez ateratzeagatik (Aginduaren 14.1.A artikulua)
015-SOR-2022	Ik 109 Laboratorio Creación Cultural	Ik 109 Faktoria de creación	34,8	Balorazioaren lehen fasean gutxienez 45 puntu ez ateratzeagatik (Aginduaren 14.1.A artikulua)
020-SOR-2022	Jazzon Aretoa, S.L.	Jazzon aretoa	37,8	Balorazioaren lehen fasean gutxienez 45 puntu ez ateratzeagatik (Aginduaren 14.1.A artikulua)
023-SOR-2022	RMO Sozietate Kulturala	Pulimentos 2022	-	Zerga-betebeharrak ez egiaztatzeagatik (5.3. artikulua)
006-SOR-2022	Traktora Sozietate Kooperatiboa	Atoi	43,3	Balorazioaren lehenengo fasean gutxienez 45 puntu ez ateratzeagatik (Aginduaren 14.1.A artikulua)
017-SOR-2022	Utopian Getxoko antzerki eskola Koop Elk Txikia	Utopian sorkuntza gunea	37,8	Balorazioaren lehenengo fasean gutxienez 45 puntu ez ateratzeagatik (Aginduaren 14.1.A artikulua)
018-SOR-2022	Zirkuola Elkartea zirkua eta arte eszenikoak euskaraz sustatzen dituen lantegia	«Sormena hauspotuz»	42,2	Balorazioaren lehenengo fasean gutxienez 45 puntu ez ateratzeagatik (Aginduaren 14.1.A artikulua)

2022ko irailaren 27a, asteartea

III. ERANSKINA
ARTXIBATUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Eskatzailea	Jarduera	Zergatia
002-SOR-2022	Silvia Sanchez Revuelta	Arteak teknologiarekin topo egiten duenean	Atzera egin du
003-SOR-2022	Ernesto Miari Gutierrez	Crea Gernika espazio multikulturala	Ez du epe barruan eta egoki zuzendu (Aginduaren 12. artikulua)
016-SOR-2022	Mama Espacio Creativo, S.L.	Mama Espazioa	Atzera egin du